

## 5. Jon Baltza: Euskararen egitura eta euskaldunen mundu sinbolikoa



Jon Baltza Mujika Tolosan jaioa eta Filosofian doktorea da.

Hona hemen euskararen inguruan argitaratutako zenbait idazlan:

*Un escorpión en su madriguera. Indoeuropeo y euskara: mito e identidad*, Hiria argitaletxea, Donostia, 2000.

*Anti-identidadea (Euskeraren bizipen bat)*, Likiniano Elkartea, Bilbao, 2005 (Peru Saban-en edizioa)

*El descrédito de los quilates. Efectos de palabra*, Iralka, Donostia, 1999 (F.J.Fernández-ekin erdibana idatzia)

*El simbolismo de la Luna y el Tiempo en vascuence*, in: *Anthropos: Boletín de información y documentación*, Nº 153, 1994, págs. 68-74.

*El laberinto quebrado in: Letras de Deusto*, Vol. 24, Nº 62, 1994, págs. 87-106.



### Jatorri

Maiz asko, euskararen gaineko ikerketetan murgilduta urteak eman ditudala azaltzen dudanean, ohiko galdera egiten didate: “Nondik dator euskara?”. Hainbestetan entzun izanaren poderioz, barreak txokatzen dit barrenean, eta harako txiste hura etortzen zait gogora: hiru lagun ari dira hizketan, egiptoarra, txinatarra eta euskalduna, bat-bederen jatorri antzinatarra erakutsi nahian edo: Egiptokoak dio gutxienez 6.000 urte dituztela egiptoarrek, txinatarrek, berriz, txinatarrek gutxienez 10.000 urte dituztela, eta orduan euskaldunak zera dio: “Ba euskaldunok ez dugu edaderik.”

Txisteak txiste eta txantxak txantxa, pasadizo horretako euskaldunak erakusten du orain arte behintzat euskal bizigunean zabalduenik izan den jokaera: inori ez zaiola axola izan “nondik” edo “noiztik” datorren euskara (eta, beraz, euskaldunak), *ez datorrela*, alegia.

“Jatorriari buruzko kezka” (horrela izendatzea zilegi baldin bazait), ordea, lasto-biltegiaren sua bezalaxe ari zaigu barreiatzen, eta esan genezake lehen aipatutako tradiziozko biziguneari gero eta leku txikiagoa duela euskal komunitatean. Ene ustez, horrek zerikusi handia du euskara bera bergizarteratzeko moduarekin: politikoen eskutan utzi baitugu betebeharrak hori (egia esan, ez digute aukera handirik eman), eta politika, jakina denez, itsukeria eta itsuskeriaren erresuma da: hau da, gauzak poliki (politiki) egin beharrean, presaka eta itsu-itsuski egiten baitira, *etorkizunaren mende*, hain zuzen ere.

### Etorri

Geroarekiko joputza horrek (Axularrek gaztigatu zigun horren gainean), datorkigukeenarekiko morrontza horrek, etorritakoarekiko lotura estu-estua erakusten digu.

Azken urteotan (30 bat urte, jo dezagun) euskal balizko hiztunen kopurua biderkatu egin zaigu, Estatistikaren mesedetan, noski. Hegelek berak bazioen sagar bat baduzu, sagar bat besterik ez duzula, baina milioi bat sagar izanez gero, *negozioa* hortxe duzula. ‘Negozio’ kutsu hori, nork ez dio nabari euskaren inguruko zerari?

‘Irabazi’ eta ‘galdu’ terminotan hizketan hasiz gero, gureak egin du, eta halaxe hitz egiten da euskarari eta euskaldunoi buruz, zenbat irabazi den, zenbat galdu den. Bai, hiztunak irabazi bide ditu euskarak, eta soberan ezagutzen ditugun gainerako beste irabazi guzikiak. Galdu duenaren, edo, agian hobeki esanda, galtzen ari denaren kontuak, berriz, atera al ditu inork zintzoki?

Euskarak (hizkuntzaren auziari lotuko natzaio zehatz-mehatz) *etorkin* ugari ditu, eta etorkin guzikiak bezalaxe, euskararenganakoek ere beren ezaugarri propioak ekarri dituzte: argi eta garbiena, beren hizkuntzen egitura (pentsaerak, pentsamoldeak, pentsabideak) txertatzen saiatu dira euskararen baitan, batzuetan oharkabea, bestetan, beharbada, ongi baino hobeki jabetuz.

Euskara indoeuropar hizkuntzez inguraturik dagoela, hizkuntza multzo horretatik hurbildu eta gureganatu zaizkigu hiztunik gehienak. Jakina, indoeuropar hizkuntzek, hau da – laburbiltzearen–, indoeuperak, oso egitura bereziak ditu: oso gramatika berezia, bestela esanda. Ezaugarri asko eta asko dira gramatika hori berezi bihurtzen dutenak, eta hemen bakar batzuek baino ez ditut aipatuko, euskararenean (euskararen gramatika, alegia) kalterik mingarrienak sortarazi ditzaketanak, izan ere.

Indoeuperaren egitura *denboraren idearen mendeko* egitura da: indoeuperarriek berregituratutako antzinako aditz-sisteman berean ikus dezakegu denboraren ideiarekiko mendekotasun hori, ‘iraganaldia’ eta ‘orainaldia’ bereizten dituen aditz-sistema baita. Hori



ez da dena, ordea: bi alderdi horien artean ('lehen', 'orain') sustraizko lotura eta esteka hautsiezina dago aditz-sistema horren arabera, 'lehendabiziko pertsonaren' morfemek erakusten diguten bezalaxe:

(lehen:) *-m* —————> (orain:) *-m-i*

Itxuraz hain sinplea dirudien eskema horretan, euskararen eta indoeuoperaren funtsezko desberdintasun nagusienetako bat ageri zaigu. Izan ere, bi alderdiak lotzen dituen geziak indoeuoperan sortutako *denboraren ideia* adierazten du: ezkerrekoan ageri den *-m* morfema eta eskuinekoan ageri dena, morfema bera da, *hizketan ari dena* markatzeko balio duena: '*ni(k)*' izan zitekeen hala-holako euskal baliokidea, baldin eta '*ni(k)*' horrek ez balu beste azterbide erabat kontrakoa azalduko.

Nabari denez, goiko eskemako bi alderdiek diferentzia bakar bat baino ez dute: eskuinaldean, *-m*-ren ondoren *-i* bat dugu: honek, gutxi gorabehera, 'hemen' esan nahi du. Beraz, hauxe da denboraren ideiarekin sorrera: *-m* ('*ni(k)*'), bi alderdietan nago, 'hemen' (*-i*) eta 'hemen ez' = 'han'. 'Hemen' eta 'han'-en artean, zer gertatu da? Zerbait pasatu egin dela: *denbora*, hain zuzen ere, horrexegatik 'han' eta 'hemen' berrinterpretatzen dira 'lehen' eta 'orain' bezalaxe. Hori bai, '*ni(k)*', nahiz eta bi leku desberdinetan egon, *ni neu naiz: han (hizketan) zena eta hemen (hizketan) dena, bat eta bera gara: ni, ni naiz.*

Aldi berean, eta era berean, denboraren ideiarekin batera '*existentzia*'-ren eta '*identidadea*'-ren ideia sortzen da: '*existentzia*', indoeuoper munduan, bi leku ('denbora', 'garai', 'aldi') desberdin horien artean dagoen lotura ezin hautsizkoa baita, eta horretan baitatza '*identidadea*' bera: bi leku ('aldi') horietako batetik bestera *ni ni-neu (bat eta bera) bezala bidaiatzean*. Ez da kasualitatea indoeuoperaren antzinako (eta gaur egun bizirik dirauen) '*izenordea*' *me* izatea.

Oso bestelakoa dugu, aitzitik, euskal aditz-sistemak erakusten diguna. Har dezagun, adibide argizat, \**edun* aditzak zer azaltzen digun 'lehendabiziko pertsonan':

*n-* / *-da*

Eskemaren ezker aldean ikusten dena izenordearen baliokidea besterik ez da, hau da, '*ni(k)*', eta eskuinaldean, berriz, ez dugu izenordearen arrastorik, baizik eta *-da* (> *-t*). Ezker aldekoa ez da 'lehen' edo 'iragan' adierazteko lekurik, baizik eta multzo batek osatutako gunea: (*ba*)*n-u*, *n-u-ke*, *n-u-en*, zeinean argi ikusten baita oinarritzko forma (*ba*)*n-u* dugula. Eskuinaldean, berriz, *hizketan ari dena* markatzeko morfema bat baino ez dugu, deiktiko bat: *-DA* (*du-da* > *du-t*). Ez dago ezker aldeko eta eskuinaldeko alderdien arteko lotura idealik, hiztunak ez ditu biak irudi baten bitartez lotzen (egitura morfosintaktikoari dagokionez), eta ez dago, beraz, 'denboraren ideia'-rik, ez eta '*existentzia*'-renik, eta ez '*identidadea*'-renik.

Izan ere, *DA* hori eskolako gramatikak 'izan' aditzaren hirugarren pertsona singularizat jotzen duen berbera baino ez dugu, baina kontuan hartu beharra dago ez dela benetako aditzik, hau da, ez duela 'izan' aditzaren erroak azaltzen duen esanahia bere baitan. 'Izan'-en erroa, jakina denez, *-iza-* dugu, hala nola 'egon' aditzarena '*-go-*' eta 'ibili'-rena '*-bil-*'. *DA* hori ez dela 'izan'-en sailekoa ikustearren, jar ditzagun 'egon' eta 'ibili'-ren sailak:

*na-go, ha-go, da-go / na-bil, ha-bil, da-bil*

Orain, jar dezagun 'izan' aditzaren saila:

*na-iz(a), ha-iz(a)... da*



DA horrek ez du esanahirik (esanahia aditzaren erroik baitatorkio aditz-forma bakoitzari): besterik gabe, zerbait *egiten* ari da: *hizketa puntua markatu*, gorago aipatutako –*da* hark egiten duen gauza berberaxea, alegia.

Izan ere, hitz egin, *orain egiten dut*. eta hitz egitean *hemen-orain* ari naizela markatzen dut hizkuntzaren bitartez, hemen-orain bizirik naizela, eta *hemen-orain*-etik kanpo izan litekeen guzi-guzia ez dela bizirik.

Euskarak badu markatze horrekin bat datorren beste ezaugarri nabaria: *toka-noka* edo *hiketa*. Hizketa modu horretan erabiltzen diren marka bereziek arestian aipatutako hizketa-puntuaren lehentasuna adierazten dute.

## Iturri

Sarritan harritu izan nau René Lafon hizkuntzalari eta euskalariak bere *Euskal aditzaren sistema hamaseigarren mendean* liburuan egindako baieztapen batek zein harrera exkaxa izan duen. Hauxe da delako baieztapena:

“Bukatua edo bukatugabea, euskal ‘lehenaldiak’ iragan hila adierazten du, eta ez du ‘orainaldian’ arrastorik edo eraginik uzten.”

Bai horixe, euskal aditz-sistemak kontu handiz bereizten ditu bi gune: alde batetik, ahalezkoa, balizkoa eta iragandakoaren taldea, eta, bestetik, hemen-orain denarena. Hauxe da euskara indoeuroperatik argi eta garbi aldentzen duen ezaugarria.

Horren arabera, aspaldian bala-bala dabilen kontu txiki bat uler genezake beharbada: Deabruak ezin izan omen zuen euskaraz egiten ikasi, hain zaila suertatu omen baitzitzaion. Euskararen balizko zailtasun hori harropuzki hartu izan da maiz, nork egiten duen hizkuntzaren zailtasuna nolabaiteko meritua balitz bezala. Zertan datza, ordea, Deabruaren euskara ezin ikasi hori?

Gogoan har dezagun ‘deabru’ hitzaren jatorri etimologikoa: grekeratik hartutako *diá-bolos* hitzaren forma bat baizik ez da, eta bere esanahia zera dugu: *bereizlea*. Bai, ‘identidadea’ da Deabruaren erresuma, denboraren ideiarene mende dagoen asmatutako identidadea, eta denboraren ideia sor ledin beharrezkoa da gorago aipatutako bi alderdi horiek bereiztea, ‘lehen’ eta ‘orain’, eta bien arteko esteka edo uztardura ideala sortzea: ni, ni neu, nire ‘identidadea’, nire ‘existentzia’. Horrexegatik ezin izan zuen Deabruak (sinbolikoki ari nauzue hizketan) euskaraz egiten ikasi... orain arte behintzat.

Euskara, Alfonso Irigoyenen arabera, *enuskara* da: hitz egiteko modua, ele-suertea. Hitz egiteko moduaren jatorria, etorria eta iturria HEMENTXE da, ez beste inon, hementxe, hizketan ari naizen honetan. Historiarene, ‘existentzia’-ren eta ‘identidadea’-ren ur-nahasi eta uherretan murgiltzea bizirik ez denaren istil kiratsuan plisti-plasta aritzea besterik ez da, hemen-orain etengabe sortuz eta sortuz ari zaidan iturriari bizkarra emanez.

Erriberako jota itzulezinak ongi baino hobeki diosku:

NO SE PUÉ CONTIMPARAR  
UN CHARCO CON UNA FUENTE:  
SALE EL SOL Y SECA EL CHARCO,  
Y LA FUENTE PREVALECE.

Jon Baltza

